



**2017KO MARTXOAREN 24KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko martxoaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 16 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, 50.588,11 € (BERROGEITA HAMAR MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMO €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- LAU KATU ELKARTEARI DIRU LAGUNTZA.-**

Lau Katu Elkarteari, kaleko katuekin egiten duten jarduera diruz laguntzeko, mila eta seiehun (1.600 €) euro ematea proposatzen da. Proposamen honetan, iazko ea aurtengo urteari dagokiona aurreikusten da, iaz, aurrekontuan partidarik ez zegoelako eman gabe gelditu zelako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartzea erabakitzen du.

**IV.- KIROLETAKO DIRU LAGUNTZAK .-**


Kirol Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabakitzen du:

**- Rally Sprint Goierri taldea.-**

Martxoaren 18an Lazkaon egindako rally eta auto klasikoen bilgunerako mila eta hirurehun (1.300 €) euroko diru laguntza ematea.

**V.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMIA JARDUERETAKO DIRU LAGUNTZAK .-**

Etxebizitza eta Ekonomia Jarduera Batzordetik, udal honek *Lazkaon* Lazkaoko Merkatarien Elkartearekin izenpetuko duen hitzarmenaren bidez guztira hogeita mila bederatziehun eta hogeita hamalau (20.934 €) euroko diru laguntza ematea proposatzen du. Hi-



tzarmenean zehazten dira, urtean zehar garatuko diren jarduerengatiko diru laguntzen xehetasunak.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du beraiek abstenitu egingo direla, egin den lanketan ez dutelako parte hartu.

Alkateak erantzuten dio lanketa gai hauetaz arduratzen den zinegotziak egin duela. Baita ere esaten du udalak diru laguntza hauek onartzearekin elkarte honek Eusko Jaurlaritzatik diru laguntza gehiago lortzea ahalbidetzen dela.

Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), proposamena onartzea erabakitzen du.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

